



**U**ne horretatik aurrera, Europa osoan zehar ugaritu ziren inprimatzaileak: Pedro Schoeffer, S. Subiaco, Adolf Rusch, Nikolas Jensen, Guillermo Caxton eta abar; Amerikako lehen inprimategia Mexikon ireki zen 1533an.



Inprimategia sortu aurreko liburu inprimatuak, argazkian ikusten den bezalako zurezko plantxak erabiliz lortzen ziren.

# Inprimategia Euskal Herrian

Euskal Herriari dagokionez, inprimategia oso goiztiarra izan zen, 1492an ireki baitzen Iruñean lehen moldiztegia. Dakigunez, Euskal Herria kultur bidegurutzea izan da betidanik eta ondorioz ez da inoiz Europan eman diren kultur eta gizarte mugitzaileak.

**Joseba Aurkenerena\***

Esan ohi denez, VI. mendean azaldu omen ziren Europan, Txinatik ekarririk, zurezko plantxekin egindako lehen liburu inprimatuak, baina XV. mendera arte europarren artean ez zuten oihartzun handirik lortu liburuak erreproduzitzeko plantxetako sistema berriak. 1441ean Maguntzia hirian Gutenberg alemaniarrek inprimategia asmatu zuen behin-betikoz eta 1540. urtean Lorentzo Coster nederlandarrak aurrerapauso handia eman zuen sistema higikorra asmatuz.

Gutenberg alemaniarra izan zen, 1441ean Maguntzia hirian, behin-betiko inprimategia asmatu zuena.





Zurezko plantxa erabiliz lortutako orrialdea. Inprimatu ondoren irudikatzen zen.

menduetatik aparte egon. Hasiera-hasieratik inprimategiak oso harrera ona lortu zuen gure herrian eta ordutik gaurko egunetaraino, hortxe dugu hamaika moldiztegi, liburuak inprimatuz eta munduaren ondasun kulturalak gure geografiaren bazter guztietara zabalduz.

**Brokarie eta Iruñeko inprimategia**

Inprimategia asmatu zenetik hogeita hamasei urtetara, 1492an hain justu, Arnaldo Guillermo Brokarie izeneko inprimatzaileak Euskal Herrian eta penintsula osoan lehena izan zen moldiztegi edo inprimategia ipini zuen orduan erresuma askea zen Nafarroako hiriburuan, Iruñean. Urte berean kaleratu zuen Brokariek Euskal Herrian inprimaturiko lehen liburua, Joan Frantzisko Tornamira tuterarrak medikuntzari buruz idatzitakoa.

Brokarie bere garaiko inprimatzailerik onenetakoa izan zen. Bere sorlekuaz, ez dakigu gauza handirik; batzuk diotenez, inprimategien sehaska zen Maguntziakoa omen zen, baina beste batzuk Espainiako Alkalakoa zela baieztatzen dute. Edonola ere, bere liburuetan erabilitako ikur grafikoek Alemaniako Eskolan ikasia zela adierazten digute zailtzarrik gabe.

Brokarie 1492an finkatu zen Iruñean eta bertan Maria Zozaiarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Iruñeko moldiztegi horretan 1500. urtea baino lehen inkunabile asko argitaratu ziren, horien artean 1497an kaleratu zen “S. Bonaventurae doctoris eximi dioeta salutis” izeneko nabarmen daitekeelarik. Agramontar eta beamontarren arteko gerra zibila hasi zenean berriz, Brokariek Iruñeatik ihes egitea erabaki zuen eta bere moldiztegia Logroñora eraman zuen. Ordutik eta heriotza

Migel Egiak lizarratarrak kaleratu zuen lehen liburua, Rodriguez Fernandezek “Vocabularium ecclesiasticum” izan zen.



Euskal Herriari dagokionez, inprimategia oso goiztiarra izan zen, 1492an ireki baitzuen Iruñean lehen moldiztegia Brokariek.

1523an iritsi zitzaion arte, Brokariaren liburuak Euskal Herrikan kanpo kaleratu ziren.

**Migel Egia eta Adrian Anvers inprimatzaileak**

Joan den mendean Muñagorri bere bertso famatueta ondo zioenez, “gerrak ez dakar onik” eta Nafarroan banderizoen artean sorturiko zorigaitzoko gerrak, beste kalte askoren artean, Brokariaren ihesa eta Iruñeko inprimategiaren desagerpena ekarri zituen Nafarroako erresumara. 1546an Migel Egia lizarratarrak (Brokariaren laguntzailea eta koinatuak) Euskal Herriko bigarren inprimategia ireki zuen Iruñean berriro ere. Egiak kaleratu zuen lehen liburua Rodriguez Fernandezek “Vocabularium ecclesiasticum” izan zen, eta geroztik beste bi liburu baino ez omen zituen argitaratu.

Adrian Anversek ordezkatu zuen Egia Iruñeko inprimategian eta berari zor zaizkio garai horietan argitaratu ziren liburu guztiak,

hogeita hamar bat gutxi gorabehera. Bere agindupean inprimatu ziren 1561ean Zangotzan eta 1565ean Tuteran ospaturiko Gorteetakoko lege-liburuxkak. 1583an Anversekin ikasia eta Iruñeko bizilaguna zen Pedro Borgiaña soldaduak aurrekoaren moldiztegia erosi zuen, Nafarroako Erret Kontseiluaren baimenaz zenbait liburu argitaratu. Gaur egun horren zergatia ezagutzen ez badugu ere, Erret Kontseilua berak urte bereko abuztuaren 23an liburuak inprimatzen segitzea debekatu egin zion Borgoiñari.



Euskaraz inprimatutako lehen liburua Bernart Etxepareren “*Linguae Vasconum Primitiae*” dela esan dezakegu (1545). Baina Etxepareren liburua ez zen Euskal Herrian inprimatu.

## Euskarazko liburuen inprimaketa

Aurretik bazeuden argitaraturik latinezko edo erromantzezko liburu inprimatutan zenbait pasarte, bertso, esaldi edota esana (Iruñean 1609an Matias Marés inprimatzailearen alarguntsak erdarazko liburu batean argitaraturiko zenbait bertso horren lekuko dira), baina dudarik gabe euskaraz inprimatutako lehen liburua Bernart Etxepareren “*Linguae Vasconum Primitiae*” dela esan dezakegu (1545). Egilea berak “*Kontrapas*” izeneko kapi-

tuluaren bertso batean ederki esaten digun bezala:

“Oraidano egon bahiz  
inprimitu gaberik,  
hi engoitik ebiliren  
mundo guzietarik”.

Baina Etxepareren liburua ez zen Euskal Herrian inprimatu, Bordeleko inprimategi hurbilean baizik. Etxepareren mendekidea izan zen Joanes Leizarraga artzain protestantearen liburua ere Euskal Herritik kanpo inprimatu ziren: Frantziako Rochelan. XVIII. mendean argitaratu ziren euskarazko liburu gehienek ere kanpoko moldiztegietan ikusi zuten lehen argia. Gehien-gehienak Bordeleko inprimategian, Sarako Eskolako idazleenak kasu, Arnaut Oihenarte eta Silvain Pouvreaurenak Parisko inprimategi batean, Bernardo Gazteluzarren liburua Pabekoan eta Orthezekoan Iban Tartasen “*Onsa hilceko bidia*” ospetsua.

1621ean Joan Beriain nafarrak idatziriko “*Tratado de como se ha de oyr misa*” meza-liburu elebiduna Iruñeko moldiztegian inprimatu zen, baita “*Doctrina Christiana*” izeneko bere bigarren liburua ere. 1656an, Martin Otsoa Kapana-garen “*Exposición breve de la Doctrina Cristiana*” deituriko liburuxka elebiduna argitaratu zen Bilboko inprimategian eta 1684an Baionakoan Aita Aranbillagaren “*Jesu Christoren Imitationea*” izeneko.

Ordutik euskarazko liburu gehienek Euskal Herriko inprimategietan ikusi dute argia, XVIII. mendean Donostia, Baiona, Bergara, Iruñea, Tolosa eta Bilboko moldiztegiak erabilienak izan zirelarik. Edonola ere, euskarazko liburu asko eta asko kanpoko inprimategietan, Bordele, Pabe, Akitaniako Tolosa, Madril, Salamanca eta Parisen inprimatzen jarraitu zuten.




Etxepareren mendekidea izan zen Joanes Leizarraga artzain protestantearen liburua ere Euskal Herritik kanpo inprimatu ziren: Frantziako Rochelan.

## Euskal Herriko beste inprimategiak

1577an, Salamancan ikasia zen Matias Marésekin Bizkaiko lehen inprimategia ireki zuen eta bertan aritu zen 1587. urtera arte. Argitaratu zuen lehen liburua, Jeronimo Osorio portugaldarraren

1577an, Salamancan ikasia zen Matias Marésekin Bizkaiko lehen inprimategia ireki zuen eta bertan aritu zen 1587. urtera arte.





“De Nobilitate” izenekoa izan zen eta latinez idatzirik zegoen. Handik gutxira santuen bizitzari buruzko beste liburu bat inprimatu zuen. 1592an Nafarroara abiatu zen, hasieran Iruñeko inprimatzailea eta ondoren Iratxekoa izan zelarik. 1609. urte inguruan hil zen, baina bere alarguntsak inprimatzen jarraitu zuen, bere senarraren heriotzaren urte be-

buruko liburuak kaleratu zen urte berean). Ordutik aurrera Euskal Herri osoan zehar zabaldu ziren inprimategiak, herri txiki askotan beren moldiztegiak ipiniz eta sarritan kalitate handiko liburuak argitaratuz. Zabaltze-garapen honekin batera, tipografoan aurrerapen handiak gertatu ziren.

1642an Baionan zabaldu zen Iparraldeko lehen moldiztegia eta

zirelarik. Jakin badakigu 1715erako Biana ongi ezagutzen zela tipografia, urte horretan Frantzisko Pikarten zuzendaritzapean, Aita Alesonen “Los Anales del Reyno de Navarra” izeneko idazlan oparoaren lehenengo tomoa inprimatu baitzen.

Zalantzarik gabe Araba izan zen berantiarrena inprimategiaren prozesu zabal honetan, lehen

moldiztegiak XVIII. mendera arte ez baitzuen argirik ikusi, 1722an Gasteizen lehena ireki izan zen arte, hain zuzen. Geroztik inprimatzaileen izenak izugarri ugartu dira, izen berriek zaharren ondoan lekua hartuz: Brokarie, Egja, Anvers, Plantin, Didot, Pikart, Ibarra, Rivadeneyra, Baroja,... eta baita inprimategiak ere, kulturari Euskal Herriko bide guztiak irekiz eta liburu inprimatuak gure herriko edozein bazterretarantz hedaraziz. Gaur egun, liburu bat inprimatzea munduko gauzarik

errazena eta arruntena iruditzen zaigularik, guztiz egokia iruditzen zait begirada eta oroimena gure hastapen apaletarantz itzultzea, agian etorkizunaren garaipena iraganaren apaltasunean oinarritzen dela ezin dudalako ahaztu.

1572an Tuteran eta Porralis inprimatzailearen agindupean, moldiztegi bat ireki zen. 1647rako Olibako Monastegian bazeukaten beren inprimategia, Fiteroko Monastegian 1606rako eta Iratxekoan 1608rako.



rean euskarazko zenbait bertso dituen liburu bat argitaratuz. Gipuzkoan 1585ean Nafarroan inprimatzea galarazirik zeukan Pedro Borgoñak debozionario xume bat argitaratu zuen. 1572an Tuteran eta Porralis inprimatzailearen agindupean, moldiztegi bat ireki zen. 1647rako Olibako Monastegian bazeukaten beren inprimategia, Fiteroko Monastegian 1606rako eta Iratxekoan 1608rako (bertan Aita Antonio Alvaradoren “Arte de bien vivir y guía de los caminos del cielo” izen-

Donostian 1672an, Martin Huarteren zuzendaritzapean, azken horretan eta 1672-1700 bitartean, hamalau bat liburu argitaratu zirelarik. Huartek Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkezturiko idazki batean irakur daitekeenez, bere inprimategirako behar izan zituen materialak garai horretan inprimatzearen ardatza eta bihotza zen Anberes hiritik ekarri ziren. Handik urte batzuetara ireki zen Herriberriko inprimategia, bertan Aita Frantzisko Garai ospetsuaren idazlanak argitaratu

\* Historian Lizentziatua eta Irungo “Bidasoa” L.H. Institutuko irakaslea.

Karlox Barrentsoro ezizenaz ere argitaratu du lanen bat edo beste.